

KONTROL MOZIOA

DONOSTIAKO KOMERTZIO ETA OSTALARITZA SEKTOREAREN EGOERARI BURUZ

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga EH Bildu udal taldeko zinegotziek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko urtarrilaren 22an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Hiriak gero eta arinago ari dira aldatzen, eta Donostia ez da salbuespena. Aldaketa horien neurria, besteak beste, hiriko ostalaritza eta merkataritza sektoreetan nabarmena da.

Online erosketei lotutako kontsumitzaileen ohitura aldaketen eta merkataritza gunen handien eraginaz gain, Donostiako ostalaritza eta merkataritza sektoreetan aldaketa bizkor eta sakonak eragin dituzten hiri-dinamika berriak agertu dira, eta Parte Zaharrean bereziki nabarmenak. Esaterako, 2015ean Hiri Alokairuen Lege berria indarrean sartu eta urtarrilaren 1etik aurrera “errenta zaharrak” deiturikoak (1985 baino lehen sinatutako alokairu kontratuak) indargabe geratu ziren. Aldaketa honek Donostian turismoaren goraka handi eta berri batekin bat egin zuen, alokairuen prezioak neurrigabe igotzen hasi zirela. Orduetik hona auzoko iruditeriaren eta bizitzaren parte ziren merkataritza eta ostalari askok negozioa itxi edo eskualdatu behar izan dute, eta gaur egun herritar ekintzaile edo enpresari arrunt batek ezin du eremu honetan bere kabuz jardun. Gaur egun, soilik enpresa-kate eta enpresa-talde handiek onartu ditzakete indarrean diren alokairuak.

Egoera honek gero eta kezka handiagoa sortzen du bizilagunen eta gainerako donostiarren artean. Izan ere, dagoeneko ez da Parte Zaharrera mugatzen den errealitate bat eta gainontzeko auzoetara ere zabaltzen hasi da. Galderak ere gero eta gehiago dira, merkataritza txikiak, eta honen baitan ostalaritzak, herri eta auzo bizitzan nahiz garapenean duen garrantzia dela eta.

Galdera horiei erantzun ematen saiatzeko eta, batez ere, egoerak errekeritzen dituen politikak ezartzen hasteko, ezinbestekoa da aipatutako hiri-dinamika berri horien gaineko ezagutza zehatza izatea. Helburu honekin proposatu genuen 2019ko azaroan *Udalak ostalaritzako establezimenduen*

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

jabetza metaketa edo kontzentrazioari buruzko diagnostiko bat egitea, balizko gertakari honek eragin ditzakeen egoera berriak aintzat hartu, eta honela, Parte Zaharrean egin beharreko esku hartzeak testuingurura behar bezala egokitzeko. Norabide bidean, 2020ko urtarrilaren 22ko Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean, Garapen Ekonomikoko, Enpleguko eta Turismo Sostengarriko zinegotzi ordezkari Ernesto Gasco Gonzalo jaunak adierazi zuen Donostiako Udalak “comisión especial de apoyo y protección a los denominados comercios históricos y singulares de la ciudad” delakoa sortuko duela. Xehetasunik ez zuen eman azken honi buruz, ezta diagnostikoaz ere.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

- 1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari ostalaritzako establezimenduen jabetza metaketari buruzko diagnostikoa egin dezala.
- 2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari merkataritzari buruzko batzordean, online salerosketak, kontsumo ohitura aldaketak eta merkataritza gunen handien eragina ezezik, sektore honen gainbeheran zerikusia izan dezaketen faktore guztiak kontuan har daitezela.

Donostian, 2020ko urtarrilaren 24an

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia

90
-107
118
10601
789
0610
11
11
1001
1007
103
113
114